

Aterik gabeko poesia: Mark Strand

Nostalgia eta metafisikaren artean murgiltzen den poeta nagusia ezagutzeko aukera paregabea dugu Visor argitaletxeak atera duen argitalpen baliotsuari esker

JON KORTAZAR



Visor argitaletxeak bilduma berri bati eman dio hasiera. 'Atentado Celeste' izendatu dute. Horrela deitu zuen Oscar Hahn poeta txiletarrak Huidobroren lanari buruz idatzitako liburu bat. Lehenengo alea Wislawa Szymborska Nobel saridunaren Poesia osoari eskaini diote, eta bigarrena Mark Strand (1934-2014) poeta estatubatuar handiari.

Hooper pintorearen bakartasuna

Mark Strand poesiari buruz hitz egiten hasten garenean, bat-batean dator ideia bat burura zein idazmakinara. Beharbada leku arruntzia da Hooperren margolanak aipatzea bere obrari buruz ari garenean. Mark Strand margolaria izan zen, eta bere esperientzia artistikoak bere hitz ederren azpian har-

tzen du arnasa. Nork ez du go-goan Hooperren pertsonaiak bakar-bakarrak bere margolanetan? Horrelaxe ageri da Mark Strand obran ageri den pertsonaia nagusia, galdua baltiz munduan, edo okerragoa dena, denboran.

Geldirik da pertsona eta bere mugak baditu eta garbi ikusten ditu. Muga da, bakartasunarekin batera, poesia hori izendatzeko bigarren hi-tza. Poetak ageri duen pertsona muga batean dago beti: izan zen pertsona go-goan du, baina izan zitekeena ez du ahaztu nahi, eta muga existentzial horretan bizi da eta hori azaldu du poetak. Argia eta lainoaren aretan bizi da bere kontzientzia. Horrela iragana eta etorkizuna etengabe lotzen dira egilearen begiradan: «Ezagutu genuen mundutik haratago, gure irudimenetik haratago, zer-

bait eduki-tzeko desioan».

Ezin esanekoaren sotiltasuna

Strandek munduan dagoen baina beste zerbait irudikatzen duen pertsona bat erakusten du, errepresentazio metafisiko bat, nostalgiaz eta harriduraz begiratzen duen errealitate batean duen lekua ulertzen laguntzen duena. Hizkuntza laua da, erraza dirudiena, baina eguneroko argi baten eta mundu garden baten kontzientzia azaltzen duen

«Strandek munduan dagoen baina beste zerbait irudikatzen duen pertsona bat erakusten du»

esaldien arteko kontrastearen garapenean islatutako bizitzari buruzko erreferentzia konplexu eta sotilen sare bat garatzen du.

Mark Straden poesia zer den dastatzeko ikus dezagun adibide bat. Gaia egunerokoa da. Poetak jango duen haragi egosia. Ez da beste munduko ezer. Haragia jaten ari da. Lehen zirkuluan errealitatea xumea dago: «Haragi egosiari begira natzaio,/ zaitutakoari eta nire platerean/jarritakoari». Eta horrek oroimena piztu dio eta amaren sukaldaritza ekarri dio gogora, eta horrela bete du bigarren zirkulua: «Gogora dator/ hau bezalako gisatu bat/ dastatu nuen lehen aldian [...] ama platerera hurbildu zitzaidan/ eta bete egin zuen». Egunerokotasunaren gaiena joandako nostalgia sortu da, bana Mark Strand mair-

su eskuak badu hirugarren zikloa gordea poema bukatzeko ordurako: «Oroimenaren haragia da./ Aldaezinaren haragia». Oroimena bera ere beste izaera maila batera eraman du eta egunerokoa haratago bidali du, esperientzia munduaren ikuskerara bihurtuz.

Horixe da Mark Strand jorkabidea. Elementu nimoñoak hartu eta metafisikaren gako bihurtu, bizitzaren gale nagusi gisa irauli eta irakurlea bizitzaren galderen mugetan utzi.

Argitalpen hau eta Strand gurean

Edizio elebiduna da aipatzen dugun hau eta Nicole Brezinek eta Martin Lopez-Vegak itzulpen mirengarria eskaini dute. Poetaren lanaren errespetuzko aukeraketa bat eman digute, autorea 11 liburuetarako hurbilketak bat jasotzen duena. Gainera, Mark Strand poesiaren ezaguarriak nabarmentzen dituen sarrera gogoangarria sinatu dute.

Gure hizkuntzan ez da Strand poesiaren gozatzeko aukera handirik. Kirmen Uribek ekarri zuen gurera 'Aitaren eresia' deituriko poema. Zabalagoa da Paulo Kortazarrek eta Karlos del Olmok eman ziguten aukera. Sarrera argi baten ondoren antologia txikia baina fina eskaini ziguten bederatzi poema itzuliz, Mark Strand ahots sakona gozatzeko aukera emanez 'Senez' aldizkarian.



Eman hegoak euskarari



Maletategian

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Kazetaritzak eta narratibak, helburu desberdina izan eta ohiko dikotomiari (errealitatea versus fikzioa) heldu arren, lotura dute: istorio edo gertaera baten osagaiak nola konbinatu eta tenkatu jakitea kontaketa aurrera egin dezan irakurlearen interesa piztu artean. Elementu horiek badute islarik Iñigo Astizek, kazetari eta poetak, plazaratu duen lehen fikziozko narrazio-liburua.

16 istorio batzen ditu, non gaien eta erregistroen oporotasuna kausituko dugun istorio erakargarriak kontatzeko erakusten duen trebetasunagatik. Horrek zerikusia dauka ze narratzaile mota izateko aukeratu duen Astizek, testuen narratzailezko izaera moldakorra aintzat hartuta, kontakizun bakoitzak forma zein tonu jakin bat eskatzen duelako ahotsak bideratzeko. Horrekin batera, istorioek ez dute amaiera itxia. Hots, zenbakidun puntu asko agertzen

diren denbora-pasa horietako baten antza dute, irakurleak puntu horiek lotzen saia daitezen esangura atzeman ahal izateko.

Egileak idazten du hizkuntzaren baliotza jabeturik, esan gabe doanarekin eta ironiarekin (hala nola, 'Svastikak', 'Tximino infinituaren teorema...') jolas-tuz, ipuinek ostentzen dutena agerrarazteko, adibidez, 'Neskalguna' dugu horren guztiaren kontakizun eredugarria. Beste batzuetan istorioek aurrera egiten dute azalezina, harridura edota absurdua ikusgai, oraindik zer den ez dakiten pertsonaiak daudelako zerbait galtzeko beldurrez, esaterako, 'Gizon on bat', 'Itzultzea', 'Monobolumena' eta 'Oreina' narrazioen protagonisten kasuan.



MONOGAMOAK
IÑIGO ASTIZ
Susa, 160 orr
17,50 euro

Astizek prosaren aukerak aldi batez landu nahi dituela begitantzen zait, literatur baliabideez jolasteko eta uni-bertso harrigarriak asmatzen jarraitzeko gogoz. Bidenabar, antzematen da idazleak gozatu egin duela kontakizunetan zedarritu dituen korapiloekin. Fikziozko narratibetan probatu ondoren, istorio gehiengatik arrakasta erdietsi egin duela kontatzen nago.

Komentu barruan

ARANTXA URRETABIZKAIA



Txikitatik ezagutu ditut bertatik bertara barrutegiko komentuak, lehengusu batek bide hori aukeratu zuenetik. Ez dut geroztik harreman hori guztiz galdu eta moja komentu horien bilakaera ikusteko aukera izan dut. Gogoan dut, adibidez, bisita egiten genenean, mintzategiko burdin hesia kendu zutela ikusi nuen eguna. Lehengusuak esan zidan hesi hori bertakoek ihes egin ez zezaten sortu zela, emakume batzuk moja izatera behartuak zeuden garaierako ondarea. Eta beraiek ez zutela komentutik ihes egin nahi, horregatik kendu zituztela burdinak.

Ikusi ditut, geroztik, nobedadeak, ama nagusia botoz aukeratzeko eskubidea barne. Nik bisitatzen dudako komentuan, aspalditxoan, josten irabazten zuten

behar zuten dirua. Orduko zenbat irabazten zuten jakin nuenean esan nien bitartekariak esplotatu egiten zituela. Erantzuna: ez gara komentura etorri dirua irabaztera, negozioa egitera, erreztzera baizik.

Ikusi dut bataiatu gabeko pertsoneniko azaldu duten tolerantzia, ikusi dut nola malgutzen zituzten debekuak, mamiari uko egin gabe. Ikusi dut nola gutxitzen zen mojen kopurua, nola bakantzen ziren komentuko bizitza aukeratzeko zuten gazteak, nola, behartzen zuten bolada batez etxera itzultzera bertan moja izan nahi zuen emakume gazte bat azken erabakia hartu aurretik.

Ikusi dut antzeko komentu batzuetan Hegoamerikatik edo Asiatik etorritako moja gazteak sartzen zirela, ez, ordea, ezagutzen dudako komentu horretan. Esan zidaten txertatze horrek ez zuela emaitza onik, bertan denbora bat pasa eta 'paperak' lortzen zituztenean, askotan alde egiten zutelako.

Errespetatzen ditut, errespetatzen nautete.

Ikuspuntu horietatik jarraitu dut heldabideetan Beloradoko mojen auzia, notizien atzetik zer dagoen ulertu nahirik. Aurtengo abuztuan, huts egin gabe, bisita egingo diet, ea zerbait argitzen didaten.